



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet”

2023ko maiatzaren 28a  
Mendekostea (A)

### Joan 20, 19-23.

Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; juduagintarien beldurrez, ateak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: “Bakea zuei”. Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean.

Jesusek berriro esan zien: “Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet”. Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: “Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenen barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenen, ukatu egingo die”.

Egiazko Espiritua datorrean, berak irakatsiko dautsue egia guztia. Arexek goratuko nau eta etorkizun guztia iragarriko dautsue.

## DEI EGITEA

*José Antonio Pagola*

San Joanen arabera, Espirituak presente bihurtzen du Jesus kristau-elkartean; haren mezua gogorarazten digu, egian ibilarazten gaitu, Jesusen maitasun-agindua gudan barneratuz. Espiritu horri dei egiten diogu Mendekoste-jai honetan.

Zatoz, Espiritu Santua, eta irakatsiezaguzu Jainkoari dei egiten Jesusek irakatsi zigun bihotzeko izen honekin: «Aita» izenarekin. Gure artean haren presentzia ona sentitzen ez badugu, umezurtz biziko gara. Oroitiezaguzu Jesus bakarrik dela harenagana joateko bidea. Azkenak direnei emanik Jesusek bizi izan duen bizitzak bakarrik agertzen digula Aitaren aurpegia. Jesus gabe, sekula ez dugu ulertuko Aitak seme-alaba guztiez duen bake-egarria, zuzentasun- eta duintasun-egarria.

Zatoz, Espiritu Santua eta ibilaraz gaitzazu Jesusen egian. Zure argirik eta zure arnasarik ez badugu, behin eta berriz ahaztuko gara Jesusek Jainkoaren erreinuaz duen egitasmoaz. Surik eta esperantzarik gabe biziko gara. Ez dugu jakingo zergatik eta zertarako jarraitzen diogun. Ez dugu jakingo zergatik bizi eta zergatik sufritu. Eta Erreinuak lankideen zain jarraituko du.

Zatoz, Espiritu Santua, eta irakatsiezaguzu Jesusen Berri Ona hots egiten. Ez dezagula zama astunik bota inoren gainera. Ez dezagula erabaki minik ematen ez diguten arazoez; ez ditzagula gaitzetsi batez ere onarpena eta ulermena behar dutenak. Ez dezagula sekula hautsi kanabera printzatu, ez dezagula itzali kordoka den metxa.

Zatoz, Espiritu Santua, eta ufatu gudan Jesusen esperientzia erlijioso. Ez gaitzela galdu hutsalkeriatan, ardurarik gabe alde batera utziz zuzentasuna, errukia eta fedea. Ez diezagula ez ezerk ez inork arreta kendu Jesus Jaun bakartzat hartetik. Ez gaitzala ezerk ere urrundu Jesusen Ebanjelistik, ez irakaspentatek, ez jarduera batek, ez debozio batek.

Zatoz, Espiritu Santua, eta handitu gudan fedea, geure ahuldadearen erdian berean Jesusen indarra esperientzia dezagun. Irakatsiezaguzu geure bizitza elikatzen, ez giza tradizioekin, ez hitz hutsalekin ere, baizik Jesus barne-barnetik ezagutzearekin. Utz diezaiogula gidatzen, beti, haren Espiritu ausart eta kreatzaileari, eta ez gure segurtasun-senari.

Zatoz, Espiritu Santua, eralda ezazu gure bihotza eta itzularazi gu Jesusengana. Gutako bakoitza aldatzen ez bada, ez da aldatuko Eliza. Guztiek inertziari emanik bizi bagara, ez da jaioko Jesusen jarraitzaileen artean ezer berririk, ezer onik. Haren kreatibitateak arrasta gaitzan uzten ez badiogu, haren mugimendua blokeaturik geldituko da.

Zatoz, Espiritu Santua, eta babestu gaitzazu Jesus ahazteko arriskutik. Geure beldurrak eta segurtasun-ezak harrapaturik, ez gara gai haren ahotsa entzuteko, ez haren arnasa sentitzeko. Astindu ezazu gure atxikimendua, zeren, Jesusekiko lotura galtzen badugu, handituz joango da gu baitan urduritasuna eta segurtasunik eza.